

Euskal sorgina: estereotipo bat

Alizia Stürtze

Iñaki Gonzalez de Garai

I. Sarrera

“Euskal Herriak, berauen aberriak, badu, horraatik, ahalegin desmitifikatzaileen akuiluaren premia galanta... gezurrak kataiatu, baina egiak askatu egiten bait ditu herriak...” idazten du Xosé Estévez historilariak *Sorginak eta Errepresioa Euskal Herrian* (Gordailu, Donostia, 1984) izeneko gure dibulgazio-liburuskari egindako hitzaurrean. Baina, bide hori egiten saiatzen bazara, betiko lau topiko baztertzen ahalegintzeko asmoz bazabiltza, kontuz, gero! Jasan beharko bait dituzu, agian, euskal olinpoan dauden zenbaiten hira eta irain neurrigabeak. Eta gutxi batzuek soilik onartuko dizute euskal berreskurapen-prozesuan zeure harri-koxkorra ekartzeko asmotan egin duzula lana, besterik gabe.

Hori da, hain zuzen, Juan San Martin euskaltzainarekin gertatu zaiguna. *Egan* (3-4, 1985, 207-212) aldizkaritik sorgingo eta errepresioaz gure liburuskaz bereak eta bost botatzen ditu. Bere haserre, sumin eta subjektibotasuna nolabait hobeto justifikatu ahal izateko, inprimaketa-akatsak eta guzti aipatzen ditu. Eta harriga-

rriena, zera da: bere punta-puntako aldizkariaren 6 orrialde ematen dizkiola 96 baino ez dituen gure liburu xumea *kritikatzeari*.

Izan ere, gure asmoa (argitaratzen ari garen historiazko bildumarena, hain zuzen) ez da ikerketa-lanak idaztea, tesi berriak agertzea. Helburu horietatik urrun gaude. Gure liburusken bidez lortu nahi genukeena, zera litzateke eta ez besterik: euskal historiaren gai zenbait euskaraz ematea; batetik, literaturaz beste diziplinak ere gure hizkuntzan irakurtzeko ohitura sortuz joateko eta, bestetik, nahikoa ezezaguna izateaz gain, mitifikatu samarra dagoen euskal historiaren zenbait ikuspegi berri eskaintzeko, tema konkretu batzuk direla medio.

Honek ez du esan nahi, ezta gutxiagorik ere, ekiten diegun gaiak aurretik ondo mamitu ez ditugunik. Historiaz edota beste edozein diziplinaz idazterakoan, ondo mugatu behar da lehenbizi lana nori zuzendua dagoen; baita hori kontutan hartu ere, kritika bat egiterakoan, San Martin Jauna! Lan baten helburuak ulertu behar dira lehenengo eta betetzen direnen araberrako kontuak hartu gero. Nori berea.

Bada, halere, San Martin-en kritikan oraindik ere gehiago harritu gaituen zerbait, bere intolerantzia eta errespetu-faltaz aparte. Hain zuzen, *sorginkeriaz*-ko bere erizpideak. Horien arabera, sorginen inguruko azterketak borobildu eta bukatutzat eman genitzake. Henningsen historilariaren lanak direla medio, gaiak zituen puntu ilunak argiturik omen daude dagoeneko. Bere idazlana zehar, dudaren izpirik ez da inon azaleratzen. Alderantzizkoa da zeharo, gure ustetan, tema honi dagokion ikerketa-maila. XVI. mendeko sorginen ugalketa bere osotasunean esplikatzen duen teoriarik ez da egundaino argitaratu. Izan ere, diziplina ezberdinak ukitzen dituen gaia dugu sorginena, batetik, eta, bestetik, Europako historia eta tokiko historia batera ikustea derrigorrezkoa duena.

Hemendik abiatuko gara orain ere. Hots: gure asmoa, berriro, polemiketan alferrik jarraitzea edo geure buruen defentsan enpeinatzea ez besterik izango da: liburuan eskainitako estudioari jarraipena ematea, hain zuzen, sorgingoaren arazoari Euskal Herriaren historia sozial eta politikoan gure ustez dagokion barneko esanahia agerteraziz. Horregatik pentsatu dugu, kritika hura *Egan*-en egin bazitzaigun ere, estudio honetarako ez bait da azken finean (bitartean pasa den denboragatik ere) aitzakia bat besterik izango, lan hau *Jakin*-en argitaratzea, *Sorginak eta Errespresioa Euskal Herri*an liburus karen luzapen eta argitzapen gisa.

Lantxo honetan, beraz, aipatutako gure liburuska prestatzera-koan jasotako informazioaz geuk ateratako konklusioak eta zintzilik utzitako zenbait galderaren laburpena azalduko ditugu. Beste diferentziak aparte, egiaz interesatzen dena hori delako esperantzarekin.

II. Sorgingoa eta sorginzalakeria Europa Modernoaren hastapenetan. Sorgin-chiza larriaren zergatiak

1) *“Sorgingo” hitzaren pluraltasun eta aberastasun semantikoa. Aurredefinizioaren beharra*

Gizarte baten forma ideologikoein zerikusirik duen edozer berbak anbiguo izan behar du derrigorrez, bere irudikapen-ahalmena hizkuntzaz kanpoko faktoreen menpean egonik. Hitzaren oroipen-efektua gure unibertso sinbolikoari atxekia dago, geure mitoei. Sineskera/erlijioa, superstizioa/mitoa (baita San Martin-ek aipatzen dituen feminismo eta marxismoa ere) eta tankera honetako hitzen kategorizazioa (txar/on, behemilako/goimailako, desarrazoizko/arrazoizko, basati/zibilizatu...) lotua dago geure kode semantikoari, nahitaez mugatzen gaituen adimenezko egoitzari.

Horixe da, hain zuzen, sorgingoak sorterazten duen arazoetako bat. Dagokion definizioarena. Unibertso semantiko oso bat hartzen du sorgingoak bere barnean. Konplexutasun handiko fenomeno sozio-kulturala dugu sorginena, Lison Tolosana antropologoaren hitzetan “erabateko buruzalutasuna exigitzen duena”¹. Sorgingoak ez du irakurketa bakar bat eskaintzen, asko baizik. Izan ere, hitz zehazgabe eta balioanitzea dugu, ardatz-hitza, *peg-word*, funtzio eta kontzeptu desberdin eta kontraesanezkoak ere batzuetan esekita dituen, alegia. Europako nekazal ingurune zenbaitetan gizarte-funtzioren bat egun oraindik ere mantentzen duen gai-hitza da, nahiz eta betetzen duen eremua bazterrekoa izan, Barandiaran-en ustetan.

San Martin euskaltzainarentzat, gauzak oso garbi omen daude: *“Sorginkeriak toki segururik izatekotan superstizioarena da”*. Esaldi motz honekin, sorginkeria eta superstizioa parekotzat jotzeaz bestalde, “superstizio” hitza bera ere interpretazio bakarreko eta balio semantiko finkoa duen hitza balitz bezala erabiltzen du,

“kotxe”, “txakur”, “udare” edota “etxea” esaten dugun lasaitasun berberarekin. Eta sofisma honetan oinarriturik, honako hau dela gure akatsik grabeena konkluditzen du: “Sineskera zaharretako mitolojia eta sorginkeria nahastea”.

Zatika abia gaitezen. Lehenik, eta superstizio barbari gagozkiolarik, zera adierazi behar da: oso hitz *narriatua* dela berau, erantzuki-kutsua oso barneraturik daukana. Hori dela eta, kontu handiz erabiltzekoa da gertakari historikoa izendatzeko unean. Espasa-Calpe-k dakartzan definizioei begiratuta, berehalakoan jabetzen gara horretaz: “Creencia extraña a la fe, creencia ridícula, culto o veneración que se da a quien no se debe...”.

Superstizioaz ulertzen badugu “kultura bizi batean kokaturik dauden beheko beste kultura hil baten zatiak”², kasu horretan bi gauza onartzen ari gara batera: antzinako mitologiari zegokion sistema bat zela sorgingoa, batetik, eta, bestetik, honen ondorioz, XVI. menderako jadanik kristauaurreko euskal unibertso sinboliko-kulturalak (sorgingoa ere barne) ez zuela inolako erregulazio-zeregin sozialik betetzen, enkistaturiko reminiszentzia baino ez zelarik.

Alabaina, ez dirudi horrelakoa zenik Euskal Herri nekazariaren egoera. Batez ere, Euskal Herri menditsu deritzonengan. Izan ere, bertako ohitura *basatiak* (askatasun sexuala eta beste), kristautze-maila baxua, leinu-egitura nola jabetza-molde amankomunen garrantzia eta tankerako datuak jasotzen dira garaiko kroniketan, honako oharpen hau egiteko, konklusio gisa: euskal menditarren arraza iraunkor eta urrunak sorginkerian erortzeko daukan arriskua. Honen arabera, antzinako ideologi moldeen funtzioak bizirik dirauela esan genezake, sorgingoa ere barne, noski.

Sorginkeria eta superstizioa parekotzat jotzerakoan, gizarte-funtziorik gabeko fenomeno gorabeheratsu edo epidemikoaz ari bagara, ordea, psikosi kolektiboaren tankeran agertzen dena (goitik eraginda ala ez, eta zein neurritaraino, gero aztertuko genuke), garaiko hizkera intelektualaren *crimen magiae*-az ari gara hitz egiten, garaikidea dugun Henningsen-en *sorginzalekeria*-z³. Eta esan beharra dago, egungo historilari eta antropologo gehienek ondo bereizten dutela buruzko eraikuntza estereotipatu eta fantastiko hau, “zelo erlijiosoak sortutako”⁴ fenomeno hau, sorgingo herritarrengandik. Geuk ere bereizketa bera egingo dugu aurreantzean.

Dena den, sorginzalekerian oinarritutako sistema hau adierazteko ere ez dute egungo historilariak *superstizio* hitza erabiltzen, beste zenbait definizio zehatzago nahiago dutelarik: sorgin-deabruzko mitologia inkisiztailea, fantasia kolektibo baten estereotipatzea, ...

Azter ditzagun orain bi ereduak eta nola eta zergatik konbinatu ziren sorgin-ehizaren une larrietan, hobeto ikusi ahal izateko, nolabait, San Martin Jauna sutan jarri omen duen gure liburuskaren azpigituluaren zergatiak: "2 *kultur molde aurrez aurre*".

2) "Maleficium"etik "sabbath"era. Herri-sorgingoa eta beronen satanizazioa

Zehatz dezagun zertxobait gehiago gure gai-hitzen esangura. Sorgingoa esaterakoan, zera adierazi nahi dugu nagusiki: nekazal gizarte gehienek ezagutu duten ideologi sistema funtzionala (erabilgarria). Sistema honek, bestalde, bizirik zirauen Behe Erdi Aroko gizarte europar zenbaitetan, ingurunearekiko menpekotasuna eta bitasunaren iraupena (kristauaurreko beste sineskera askorekin batera) zirela kausa. Segurtasunik ez iraunkor honen aurrean, sorginak (kreatu eta birkreatu egiten den ideia bezala) koplaturukoaren (*chivo expiatorio* delakoaren) funtzioa betetzen zuen (beste batzuen artean), gaitz zenbaiti aurpegi eman ahal izateko; sorginaren bidez gorputz hartzen bait zuten gaitz eta eritasun askok, baita heriotzak berak ere zenbaitetan, ondorioz konbatigarriago, ukigarriago bihurtzen zirelarik.

Beste arazoa litzateke (orain tratatu behar ez duguna) nolako pertsona edo sektoreak aukeratzen zituzten komunitate haiek zorigaiztoko unetan sorgin-botere haiek gorputz har zezaten. Gauza jakina da, ikertzen ari garen garaian oso estua zela emakumezkoen eta sorginkeria-artearen arteko korrelazioa. Baziren, alabaina, beste zenbait korrelazio, orokorrean zera onar daitekeelarik: talde sozial saihestu guztiak (makina bat zegoen mende haietan) sorginkeria-rengatik salatuak izateko arriskutan zeuden beti, arrazazko taldeak (euskaldunen kasua esaterako) zein talde mespretxatuak (emakumezkoak eta haurrak) zein baztertuak izan⁵.

Esandakoaren arabera, orduan, eta Europari gagozkiolarik, kristauaurreko garaietan nagusi ziren ideologi moldeen osagaietako bat litzateke sorgingoa, XV eta XVI. mendeetan oraindik ere bere esanahia bizirik mantentzen zuen sistema, zenbait tokitan.

Kristautasunarekin, bere bizikidetasunaren eraginaz, noski, ez zuen lehengoa bera izaten jarraitu urte haietan. Mantentzen zuen, ordea, bere funtzionaltasun soziala, zenbait baldintza sozio-ekonomikok aldaketa handirik gabe zirauen leku batzuetan.

Izan ere, ebanjelizazioa azalekoa baino ez zen bazterretan (mendietan, adib.), Elizak ez zuen indarrik, behar adina behintzat ez, sineskera zahar haiek behin-betiko baztertu ahal izateko. Kontutan hartzekoa da, bestalde, ingurunearekiko menpekotasun eta beldurrari ez zietela behar bezala erantzuten gero eta izpiritualago bihurtzen ari ziren Eliza *ofizialaren* promesek.

Sorginzalekeria, berriz, elite eskolatuaren kreaizio intelektuala izango litzateke, Feudalismo berantkorraren *Establishment* delakoak sortua. Hondatzaile da izakeraz, kristautasunaren inbertsioa, eta ez da *maleficium*-ean oinarritzen (herri-sorgingoaren antzera), *sabbath*-ean parte hartzean baizik. N. Cohn-en arabera (op. cit.), mitologia hau inkisizio-prozedura judizialaren hedapenari esker eratuz joan zen. Izan ere, kateko salakuntzak baimentzen zituen sistema hark, zeinak tortura egia lortzeko tresna ezinbestekotzat jotzen bait zuen.

Garaiko elitearen kreaizioa izan arren, mitologia hura osatzen zuten elementu gehienak lehenagotik zetozen. Hala frogatzen du behintzat *En Pos del Milenio* liburuaren egileak, mendeetan zehar egin dituen bilakuntzen ondoren. Hegan egiteko gaitasuna, adibidez, *sabbath*-ak, edo sekta satanikoaren existentzia, estereotipo berri bati erantsitako osagarri zaharrak baino ez ziren, Erdi Aroaren tradizioan bertan jasoak kasu askotan. Izan ere, haietariko batzuek gaur arte iraun dute, ahozko komunikazioa dela bide. Euskal Herriari gagozkiolarik, Aita Barandiaranek bildutakoaren arabera, berezgaindiko erak erabiltzen omen dituzte sorginek lekuz aldatzeko ("*sasi guztien gaineti eta odei guztien azpiti*"). Biltokiak ere badituzte ("*ez geala ba geala, amalaumilla emen geala*"), honek dakarren ondorioarekin: helburu zehatz batekin biltzen den talde bat osatzen dutela sorginek, alegia. Biltzarre horiek, bestalde, antzinatik sakratutzat hartu izan diren tokietan ospatzen jarraitzen omen dute maiz antzean: koba-zulo, bide-gurutze, mendi-tontor eta abarretan. Tradizio berdintsuak jaso ditu Lison Tolosanak Galiziako zenbait herriskatan.

Baina, har dezagun berriz ere inkisizio-estereotipoaren haria. Onartutzat ematen da egun, sorginzalekeriaren izurriteak sorginetan sinesten zutenengan suertatu zirela soilik, sineskera zahar

hauek eta elite ikasiak eratutako deabruzko mitologiaren artean emandako sinkretismoa zela bide. Herri-mitologia amarrugabe eta erabilgarriari teologo eta legegizonek burututako beste abstrakzio intelektual hura eransten zitzaion unean, orduantxe kutsatzen ziren historia kolektibo haiek, antza, sorgingoaren osagai guztien esanahia goitik behera eraldatuz, gainera: Henningsen-ek dioenez, "tokiko kultura herritarraren eta metropoliaren kultura elitistaren arteko estaldurak buruzko mutazio kolektibo zenbaiti bide eman zien, sorginzalekeriaren eragileak izan zirenak hain zuzen".

Iraupen laburreko historia kolektibo haiek nolabait argitu ahal izateko, eredu demonologikoaren herri-integrazio hau onartu arren, *iceberg*-aren muturra baino ez dela deritzogu. Izan ere, ideiak giza harremanen adierazpidea besterik ez dira gure ustez, eraikuntza soziala egitura sozioekonomikoaren kausa eta ez ondorio den bezalatsu. Sarraski haien sorburua gizakiaren irudimenezko ahalmenean datzala onartzeari axaleko samarra deritzogu. Honек ez du esan nahi, noski, gizarte-psikologiaren erabilera interesgarritzat jotzen ez dugunik, jazarpen zein sorgin-ehizen aurrean ematen diren historia kolektiboetan murgildu ahal izateko eta nolabait ulertzen hasteko gertatutako emoziozko egoera kolektiboaren prozesuak (hor ditugu, besteak beste, Euskal Herriak jasandako *layra* izeneko ustezko izurriteak); ezta psikoanalisi tresna garrantzitsutzat hartzen ez dugunik ere, Erdi Aroko Europan nekazaritzak ezagutu bide zituen estasi eta ametsetako esperientziei (naturaz gaindiko bidaiak, haurriltzeak, giza jaletasuna...) erantzun zientifiko bat emateko.

Sorginzalekeria eta erakarri zituen ondorioei gagozkielarik ere, gauza bera esan daiteke. Ezinezkoa zaigu, izan, fenomeno hauek beren osotasunean argitzea, herrisketan sortutako inbidiak eta tirandurak direla medio. Ezta akusatu askoren *taedium vitae* edota lekukoen salakuntzetan oinarrituz ere. Guzti hauek, faktoreetari-ko batzuk baino ez dira.

Sorgin-sektaren benetako existentzian finkatutako azalpenak, bestalde, Margaret Murray-ren motako sekta izan, Michelet edota Runerberg-en tankerakoa izan, euskarririk gabeko teoriak direla deritzogu (San Martin Jaunak, detektibe-susmo ernea erakutsiz, gure lana Michelet-en *La Sorcière* izenekoaren "kalko" bat dela lerro artean aditzera ematen duen arren). Sektaren errealitatea onartzen dutenak (Diana gurtzeko bilduta edota iraulketarako antolatuta), eta mende haietan sorginkeria nabarmen suspertu zela admititzen dutenak⁷, biak zulo berean erortzen dira: auzietan ida-

tzitakoa egiazat onartzea, alegia. Arazo hau dela eta, ados gaude Cohn-ek (op. cit.) dioenarekin: erabilitako froga guztien artean bat faltsua dela erabat onartuz gero (hegaldiak, Satanen presentzia...), ezin gara besteetan oinarritu, nahiz eta onargarri deritze-gun. Izan ere, zer isladatzen da auzietako aktak edo Den-Lancre-ren idatzietan zehar? Bada, garaiko ikarak, elitearen obsesio demonologikoak, pentsamolde klerikala kutsatzen duen misoginia, inbidiak... Errealitate materiala, gabezia, klase-borrokak, hori dena ezkutuan gordetzen dute dokumentuek.

3) *Sorgingoa eta Ikerbide berriak urratu beharra*

Henningsen-en ustetan (op. cit.), "sorginenganako sineskerari buruzko teoria dinamiko bat sortu ahal izateko", jazarpen masiboetatik kanpo ikertu beharko litzateke Europako sorgingoa. Idazle honen aburuz, *witch-craze* delakoak nahaspilatu eta desitxuratu egiten bait du erabat *sitz-im-leben* herritarra. Etengabe handituz doan elurrezko bolaren antzera, inkisizio-prozedurak lekuko eta hobendunen kosmoikusera ezabatu egiten du guztiz, gugandik ezkutatu horrela noraino zen sakona erlijio-ideologia nagusiaren bereganatzea herri xumearengan. Ondorioz, ezinezkoa zaigu jakitea nekazal komunitate zenbaitek barneraturik zutenentz hierarkia kosmiko kristauaren isladapena baino ez zen "*mundu honetako hierarkizazio soziala*"⁸, honek suposatuko zukeen arriskuarekin (klase menperatzaileen ikuspuntutik, jakina).

Henningsen-ek aurkeztutako ikerbide hau, bestalde, oso lagungarri gertatuko litzaiguke (halaxe uste dugu behintzat) marginalitateen historia egiten saiatzen garenoi (herriak izan edota talde sozialak). Esana dugu, dagoeneko, sorgingoa nolabait zutik zirauren tokiek baino ez zutela errepresio zabalik ezagutu. Areago oraindik. Deabruzko sektaren mitoa garaile gertatu zen bakar-bakarrik sorginak kolektibotzat hartzen ziren lekuetan. Gaurdaino arakatutako dokumentuek, behintzat, horixe frogatzen omen dute. (Izan ere, Europako iparraldean *maleficium* delakoa aipatzen da salaketetan. Ez, ordea, sekta baten kidea izateagatik akusaziorik).

Honen arabera, antzinako ereduaren erroek tinko zirauten tokietan beste inon ez zuen inkisizio-estereotipoak ezartzerik izan. Hau onartuz gero, honako ikerbide hauek jorratzen hasi beharko litzateke:

- Noraino bereizten ziren marginalitate horiek (pertsegizioak nagusiki zigortu zituenak, alegia) beren albokoengandik, mugimendu zentripetu orokorrari enbarazu egiten zioten forma ideologiko zahar (edo zaharberritu) batzuei atxekirik jarraitzeagatik. Homogenizazio-prozesu hartan, goiko klase lokalek ere hartzen zuten parte (beste arrazoien artean, jabetza-molde tradizional zenbait baztertzeko asmoz). Jazarpenaren eta talde edo herri saihestuen arteko korrelazioa estua gertatuko balitz (Europa mailan, esaterako), zera onartu beharko litzateke: sorgin-chizaren helburu nagusietako bat zela bazterreko forma guztien erasotzea, *komunitate sakratua*-ren etsaiak direlako aitzakiaz.

Honek izan beharko luke, gure ustez, aukeran dagoen ikerbi-deetako bat, agerian jarri ahal izateko, nolabait, sektore saihestuek betetako *rola* sorginkeriarren aurkako jazarraldi gehienetan. Batez ere, Erreforma eta Kontrarreformaren ondoren, non gainegitura menperatzaileak besteren elementuak bereganatzeko ahalmena agortua bait dauka jadanik.

- Europan zehar ematen diren jazarraldiak zein puntutaraino datozen bat miseria gorriko uneekin, batetik, gabeziak dakartzan bazterreko sektoreen areagotzearen kariaz, eta, bestetik, krisialdiak eragindako ezegonkortasun soziala nolabait baretu ahal izateko. Zoritxarrez, egun dakigunarekin (guri heldu zaigun materialarekin behintzat), ez dago behar bezala baloratzerik norainokoa izan zitekeen korrelazio hura, jazarritako guneen eta gainegiturazko forma zenbaiten iraupenaren artean egon zitekeena, alegia. Ondo neurtzerik ez daukagun bezalaxe ehizaldiekin bat omen datorren sorgingoaren suspertzea bera ere noraino egia den, egia bada. Izan ere, benetako susperraldia ezagutu al zuten sorginek une haietan ala goitik puztutako fenomenoak izan zen?

Alabaina, bada arazoari aurre egiteko beste aukera: zergatik eta noizdanik sortu eta aplikatuz joan zen inkisizio-gainegitura hura aztertzea eta, horrekin batera, zergatik handietsi zen ahalmen satanikoa estereotipo haren barruan. Edota, beste hitzetan, eredu sataniko haren egitekoak zeintzuk izan ziren praktikan.

Harris-en ustetan⁹, “oso ondo eraikia zegoen sistema dugu sorginena, latz, iraunkor eta euskorregia gertatu zena”, ez zela helburu zehatz bat bete ahal izateko sortu eta bultzatu pentsatzeko. “Erdi Aro berantkorreko krisiaren erantzukizuna Elizaren eta Estatuaren lepotik kendu eta deabruari leporatu ahal izateko” sorturiko estereotipoa dugu sorginena. Izan ere, horrela, “errugabe

agertzeaz gainera”, ezinbesteko elementu bihurtzen dira bai Estatu eta bai Eliza. Honen arabera, erakundezko egituraren premiazko elementua dugu sorginzalekeria, klase pribilegiatuen menperapena iraun erazteko erabiltzen dena; klase-interesek bideratutako buruzko sistema bat, zeinaren bidez herri-klaseek jasaten duten esplotazio objektiboaren *desrealizazioa* ematen bait da.

Baina, noren aurka zuzentzen da sorginzalekeria hau? Bada, sektorerik ahulenen aurka. Sistemak berekin du marginalitatea. Bere egitura ekonomiko, sozial eta politikoek behartu egiten dute sistema zenbait talde baztertzeri eta, horrez gain, gizartearen gaitz guztiak talde horiei leporatzeri. Izan ere, gizadiaren etsai nagusiak, deabruak alegia, baztertuez baliatzen dira bere eginkizunak bete ahal izateko; gauzak horrela, beldur eta obsesio guztiak kristaltzen dira marginatuengan. Edozein gizabanako edo talde baztertu koplaboruko bihurtzeko gai da, berak bait dira bekatuaren haragipen nabariena, deabruaren kokagunerik maiteena.

Eliteak bultzaturiko ideia dugu hau. Krisi edo izurritearen erantzuleak, marginatuak berak izango dira, marginalitatea bera bekatuaren seinaleztat hartuko bait da. Hori horrela, eta krisialdia dela kausa edo baztertu ugari agertzen denean, *lumpen* honek jasan beharko ditu herri-hirak, botereak jasan beharrean. Koplaborukoaren bidez gaizkia gauzatzeko komunitateak duen behar horretaz baliatzen da boterea, hain zuzen (kinka larriko uneetan batez ere), bere nagusitasuna eztabaidatzen has ez dadin herria. Ondorioz, agintari eklesiastiko eta zibilak indarturik ateratzen dira, eta aginpidea garaille; eta, gainera, borroka sozialak desbideratu egiten dira, botereak *azpiproletal*go honen arriskugarritasuna alboratzea lortzen duen bitartean (izan ere, eta bere kontzientzia politikorik eza gorabehera, arriskugarri gerta bait liteke *lumpen* hori, krisialdian batez ere).

Harris-ek dioenez, inkisizio-sistema penala dela medio, sorgin-sistema bat sortuz doaz agintariak eta, horren bidez, hainbat kontraesan bideratuz komunitatearengan, haietariko bat “plebeiu proletaldien eta ezproletaldien arteko kontraktasuna” delarik.

Nola Elizak hala Estatuak, biek bultzatu egiten dituzte herri-sineskera zenbait, eguneroko bizitzan eragina izan dezaketen izpiritu gaizkileei dagozkienak, hain zuzen. Akinoko San Tomas-en hitzetan “deabruak benetakoak dira... badaukate egurtsa uher-tu, haizeak sortu eta zerutik sua botatzerik...”. Elizarengan bilatu behar da psikosi satanikoaren garapena. 1484. urteko *Summis desi-*

derantes affectibus delako buldak zioenez, "uztak, gizadia edota animaliak suntsitzen dituzten sorginen bidez mintzatzen da Satan". Inkisidore eta epaileek gizaldiz gizaldi sortutako sorgin-sistema haren arabera, sorginak ziren izurrite, gerrate eta despopulazte guztien errudun, horretaz ez zegoen zalantzarik. Etsaia (deabrua) gero eta boteretsuago ari zen bihurtzen eta, tamaina hartako arerioa eraso ahal izateko, edozein motatako edozein neurri bidez-kotzat har zitekeen.

Ikus dezagun, orain, zer datzan sorgin-sistema horren azpian. Orokorki, nekazal populazioaren kaparik behartsuenek jasan behar izan zituzten salaketa eta terreapen gehienak. (Villeneuve-ren ustetan¹⁰, oso ondo bereizi behar dira hiri eta jauregietako azti, astrologo eta igarleengandik, hauetariko asko oso ondo begiratuak zirelarik). Bestalde, jazarturikoen hainbesteko nabarmen bat emakumezkoek osatua zen (Alemaniako Hego-Mendebaldean erre zituztenen artean, esaterako, % 82 emakumeak ziren): babesgabeko atsoak, emaginak, beren gabezia eta errumeskeriagatiko andre ja-sangaitzak.

Demonologoen gehiengoak gizaki haien itsuskeria eta lizunkeria nabarmentzen du batipat. Izan ere, emakumea, garaiko Spenberg-en hitzak erabiliz, "akadun animalia" baino ez da, ustegabeko izakia (Akinoko San Tomas-ek zioenez), deabruaren egoitza izateaz bestalde, erraz dena.

Nonnahi azaleratzen den elizaren misoginia honen arabera (eta hau esateagatik, ez gara *feminismoan* erortzen ari, San Martin Jau-nak aditzera eman duen legez), bigarren mailako izakia izanik, berezkoa zuen emakumeak sorgin bihurtzeko arriskua.

4) *Konklusio gisa*

Euskal Herriaren adibidea ukitu baino lehenago, hona hemen aurretik esandakoaren inguruko ondorio batzuk.

- Kosmoikuskeria animistaren osagaietako bat da herri-sorgin-goa. Sineskera horien arabera, izpirituak ez dira gaizkile edo ongile hutsak (ezta jainkoa eta sainduak ere). Substratu honen gainean, eliteak sortu eta bultzaturiko beste mitologia satanikoa gainjartzen da.

Bizitza, gaixotasun eta heriotzan badute izpirituek beren eragi-na. Herri-sineskera honetaz baliatzen da sorgin-sistema berria, he-

rri-esanahi sakona eta funtzionala hutsalerazi, mutatu eta itxuragabetzeko. Horrela, sistema ezezkor, suntsitzaile eta funtziorik gabeko bilakatzen dute sorgingoa.

• Zergatik ezartzen da estereotipo sataniko hori? Esana dago, jadanik, inkisizio-prozedura ohizko prozedura akusatzailearen ordeztu ezartzeari dagokiola zehatz-mehatz taxututako itaunketa-sistema baten eratze progresiboa, honek dakartzan ondorioekin, hots, sorgin-sektaren existentzia materiala admititzea eta talde horren helbururik behinena gaizkia lurraz jabetzean datzala onartzea. Sorginkeria hau heresiaren parekotzat jotzen da.

Baina, nolatan ezartzea lortzen da delitu-figura hau? Zer dela eta elitearen eginahal guztiak, sorgingoa itxuragabetu eta deabruen menpean jartzeko?

Maila ezberdinak ditu erantzunak. Sorginkeria, berragertu egin zen ala berragerterazi egin zuten XVI eta XVII. mendeetako urte haictan? Caro Barojaren ustetan, edozein jazarpenen atzetik bada go beti egitate erreal bat. Honen arabera, suertatutako gehiegikeria eta hilketa guztiak zer edo zergatik gertatu ziren: sorgingoaren nolabaiteko suspertzearengatik, alegia. Horrela, ondorioa (erre-presio itsua) kausa baten erantzuna baino ez zen izan (sorginkeriarren indartzea).

Alabaina, tankera horretako baieztapenek arazo orokorraren alde bat baino ez digute erakusten gure ustez (holokausto historiko guztiak justifikatzen dituzten bitartean), tokiko historia kolektiboekin zerikusirik duena, hain zuzen.

Izan ere, pulpituetatik zabalduetako deabruaren arrisku neurri-gabeak *gaizkia* haragitzen ohituta dauden komunitateek bereganatzen badituzte, une horretan oso toki apropos bilakatzen dira *sorgin-eztandak* ustekabeen ezagutzeko. Uholdeak, lehorteak, izurriteak, goseteak... edozer krisialdiren aurrean, gertu egongo dira giza talde horiek koplaturukoren bat aurkitzeko, ezbeharraren eragile zuzena dena. Horretaz, hona zer zioen garaiko Jacques d'Autun kaputxinoak: "Il n'est point de désordre semblable à celui des Assemblées de village, lorsque (...) des facheux accidents quoique naturels, comme le dérèglement des saisons, donnent occasion à ceux qui n'en savent pas la cause, de l'imputer à des idiots..." Nahas-mahas horretaz baliatuko dira espekulatzaile zenbait beren helburu ekonomiko edo politikoak lortzeko, ur uher horietan, inbidiak, liskarrak eta mendeku-grinak libre ibiltzeko aukera dutelarik. Badirudi, halaxe dio *La vie quotidienne sous l'Ancien Régime*

liburuaren egileak, ustezko sorginen salaketa eta atzipena direla komunitate haiek krisialdiari aurre egiteko zuten bide bakarra.

Baina honek ez du dena argitzen. Izan ere, ez da ahaztu behar delituzko figura apezzeria eta agintari zibilek sortua dela (klase menperatzaileek, alegia) eta ez nekazal komunitateak.

Onar daiteke elite ikasiak (boterearen ordezkari intelektual bezala) sinestea Satanen ahalmenak gero eta handiagoak zirela, sorgina gizarte kristauaren aurkako konspirazio sataniko horren parte-hartzaile izanik.

Cohn-ek ikertutakoaren arabera, hain zuzen, erlijio-gerrate, mairuen garaitia, eliza ofizialaren luxukeria, heresien hedapena, ohituren zabartasuna... edonora begiraturaz, deabruaren botere hazkorra eta kristautasunaren ahulezia besterik ez zen ikusten. Sorgin-deabruen arteko harremanetan iraulketa bat gertatu da, eta, ondorioz, morroi izatetik, nagusi izatera pasa da Satan.

Baina, zer datza Satanen ahalmenaren beldur horren azpian? Mendeak dira zenbait egiturazko aldaketa gertatzen ari dela, honek dakartzan krisi eta ezegonkortasunarekin. Atomizazio feudalarren aurka ari den erdiratze-prozesuaren urteak dira haiek, monarkien indartzea, burgesia aberastuaren igoera eta boterea lortzeko borrokak batera gertatzen ari diren urteak. Erlijioari dagokionez, bestalde, mugimendu heretiko guztiez gain, Erreforma eta Kontrarreforma jasan behar izan ditu Elizak. Ondorioz, askoz itxiago eta dogmatikoago bilakatuz. Hortik aurrera, egitura instituzional haren babesean, mota guztietako neurriak hartuko dituzte bi elizek, protestanteak eta katolikoak. Hortik, sorgingoaren inguruan sortutako delituzko figura.

Figura horrek, bestalde, beste funtzio bat ere beteko du: Eliza eta monarkiaren mugimendu erdirakoi eta konbergentearen lagungari izatearena, hain zuzen. Sorginen aurkako erasoaldiak direla eta, inseguritatea areagotu egiten da jendearengan, elkarrekiko susmoak ugalduta eta komunitatearen zati bat bestearen aurka jartzen den bitartean. Ondorioz, sektore baztertuengana desbideratzen dira frustrazioak, eta agintariak nagusitu egiten dira. Sorginkeriarren aurkako (hau da, gaizkiaren eta desordenaren aurkako) aliantzek, Eliza eta Tronuaren artekoek hain zuzen, eutsi egingo diote orden politiko eta erlijio-diziplina derrigortzeari. Aurrerantzean, elizak ez du oztopo handirik izango herri-festak, *haragikeriak* eta abarrak debekatu eta zigortzeko, *abstinentzia*, aitorrak eta jaunartzeak naharotzen diren bitartean. Monarkiak berak ere zailtasun

gutxiago aurkituko du bere saioaldi erdiratzaileak aurrera eramateko. Honen agerbide argia dugu Richelieu-ren garaiko Ipar Euskal Herria.

Gure ustez, beraz, sorgin-ehizen eragile nagusi, sakon eta ezkutua horixe dugu: garai hartako mugimendu konbergentea, hots, egitura, erakunde eta ideologiaren bateratze eta homogenotzatzearen beharra, eta beronek sortzen duen ezegonkortasuna. Tes-tuinguru honetan, mugimendu historiko erdirakoi haren osagai bat besterik ez litzateke izango inkisizio-mitologia. Egituraren parte bat. Ez, ordea, egituraren aberrazio bat.

Badaude, zalantzarik gabe, beste eragingarri asko. Baina bigarren mailakotzat jotzen ditugu. XVI eta XVII. mendeetako sorgingoa eta sorginzalekeria europarrak eta gertatutako errepresioa beren osotasunean ulertzeko, diziplina askoren beharra dago, hori ez dago ukatzerik: psikiatria soziala, historia, antropologia... Alabaina, arazo orokorrak badu bere ardatz nagusia, gure ustetan: mugimendu konbergentea.

Ikus dezagun orain, eskema hori aplikatzerik dagoenentz Euskal Herriaren kasuan.

III. Sorgingoa eta sorgin-ehiza Euskal Herrian

1) *Sorgingoa, sorginzalekeria eta zentralizazio-prozesua Euskal Herrian*

Egun oraindik, gaiari dagokion zenbait puntu ikertu eta argitzen ez den bitartean, ezinezkoa da Euskal Herriko sorgin-errepresioa bere osotasunean azaltzea. Oso eroso da San Martin Jaietan egiten duena, hots, 1610. urteko epaiketa bakarrik kontutan hartu, garaiko sorgin-ehiza "psikosis-kolektibo izugarri" baten kariatz soil-soilik sortu zela nolabait frogatzen saiatzeko. Psikosi haren leherterazlea, De Lancre-ren pertsekuzioarekin izaturik, Zugarramurdi eta Urdazubin kokatu ziren ustezko *sorginen* presentzia izan zela esanez. Izan ere, San Martin-en ustetan, "beldu-urrez heurak kutsatuko ote ziren", muga-inguruko herrietan kateko salaketak barreiatu ziren "salatzaile herriko jendea zela, populua bera jaunei, elizako erretoreari edo goragoko agintarietara salakuntzak egiten zitzaizkien, jaun horiek Inkisizioko tribunalari parte

eman zezaten". Eskerrak jaunak bazirela herriaren beldur hura baretu eta konpontzeko!

Oso eroso da, izan, herri-kutsapenaren teoria hau; baita oso partziala ere, zeren bazterrean uzten bait du gaiarekin zerikusia duten funtsezko hainbat puntu.

Zerikusi handia izan zuen histeria kolektibo hark kateko salaketekin. Ez dago dudarik. Baina, tankera bereko beste egoera historikoetan bezalatsu, izurrite horien iturburuan ez zetzan ondorioak jasan zituen herria, beste giza sektorea baizik. Izan ere, populua ez zen sorgin-etzandaren sorterazlea izan, ez lehen mailan behintzat, *leherterazlea* beste nonbait bilatu behar delarik. Ilunpean dauden eragile horiek azalartzea, hori da historilariaren egitekoa, eta baita interpretazio-hipotesi berriak eskaintzea ere, ausartak diruditen arren, askotan.

Aurreko partean azaldu dugunez, inkisizio-prozedura datza, gure ustez, kateko salaketak argitzeko gakoetako bat, eta prozedura hura ez zuen populuak ezarri, ez horixe; mitologia satanikoa herriak asmatu ez zuen bezalaxe, goiko klaseek baizik, nahiz eta geroago komunitateak forma ideologiko hori barneratu, sorgin-zoraldien oinarrian dauden mutazio kolektiboak sortuz.

Logroñoko prozesuaren inguruko giroaz hitz egiten diguten dokumentuek garbi erakusten duten legez (zeharka bada ere), pulpituetatik botatako sermoiak edota ediktu-promulgazioak izan ziren sorgin-etzanden lehenengo bultzatzaileak. Salazar inkisidoreak erak horixe bera egiaztatzen zuen 1611. urteko bere informean: "ez dago ediktu gehiagoren beharrik... nere esperientziak erakusten didanez, sorginak eta beren ekintzak ez ziren existitzen *batzuek horietaz hitz egiten eta idazten hasi ziren arte...* eta hau frogatzeko aukera Olagueko herrian izan nuen. Aitortzera joandako guztiek hauxe deklaratu zuten: Sorgin-kontu guzti hau Fray Domingo de Sardo-k gai honetaz eman zuen sermoiarekin hasi zela".

Horrez gain, Lapurditik ihesi etorri zirenen artean, gutxi baztuk baino ez ziren Logroñon prozesatuak izan. Bestalde, San Martín euskaltzainak Ipar Euskal Herriko errepresioaren zergatiez ezer gutxi aipatzen du. Zergatik ote, Pirinioek komunitate sozio-ekonomiko bakar bat baino ez zutela osatzen kontutan hartzen badugu? De Lancre-ren obsesioak (euskal hugonoteak ere barne) eta gehiegikeriak direla medio ezin da dena esplikatatu. Izan ere,

garaiko emaitzak baino ez dira epaile haren pentsamoldea, eta itsumen demonologiko guztiak; gainera, Lapurdira etor zedila ez zuen eidozein giza taldek exigitzen, bertako jauntxoek baizik. Definitu beharko litzateke zein helbururekin. Eta De Lancre-k sortutako izua zela eta, noraino baretu zen ekaiztsu samar omen zegoen egoera soziala.

Baina oraindik beste argudiozko ardatza erabiltzen du San Martinek gure liburuskaren gai nagusia botatzeko, hots, 1609-1611 epealdian, Inkisizioak eta batez ere Alonso de Salazar y Frias izeneko inkisidoreak izandako jokaera guztiz aurrerakoia argudio definitibotzat hartzea hau hobeto defendatzeko, errakuntza nabarmenak idatziz, gainera: 1611. urteaz geroztik sorgin-epaiketak ez zela berriro eman Gaztelako Koroan. Dokumentuen arabera, ordea, 1664-1794 epealdian, hain zuzen, ezagutu zuen Gaztelak sorgin-prozesuen portzentaia altuena.

Salazar y Frias-en jokaera dela eta, oso progresistatztat jotzen badute batzuek, horrek ez du gizon haren ikuskera politiko zuhurra agerian jarri baino egiten, beste zenbaiten ustetan. Batzuentzat humanismoa denari, beraz, beste zenbaitek pragmatismo deituko diote.

Edonola ere, sorginei buruzko Salazar-en pentsamoldea XVI. mendeko Supremarenaren jarraipena baino ez da. Izan ere, teoria eszeptiko horri eutsiz, Kontseilu Goren hark aurre eman zion, behin eta berriro XVI. mende osoa zehar, tokiko inkisidore eta batez ere aginte zibilaren zelo neurrigabeari. Jarrera horren adierazgarri, hortxe ditugu Supremak jarritako mugak 1525eko sorgin-erreketa Nafarroan. Edota 1526an, inkisidoreek burututako bilera berezia Granadan, non, zigorrak beharrean, sermolaria Nafarroa aldera bidaltzea askoz probetxagarriagoztat jo bait zuten. Baita, ildo beretik, Supremak aginte lokalei egindako eskaera-mordoa Malleus delakoa hitzez hitz jarrai ez zezaten, kode honen antitesia zena, Andosilla-ren *De Superstitionibus* izenekoan oinarritzen zirelarik Kontseilu Gorenkoak. Salazar y Frias-ek, beraz, Ofizio Sainduaren tradiziozko jokaera berreskuratu egin zuen, ez besterik. Airean geratzen den puntua, bada, hauxe litzateke: zelako presio edo arrazoiek bultzatu zuten erakunde hura, Logroñoko prozesuaren urteetan, sorgin-arazoekiko bere ohizko moderazioa baztertu eta Europako errepresio-bideari ekitera.

Baina, aparatü haren sorginkeriekiko eszeptizismoak, XVI. mendean zehar erakutsitako "esku leuna"k, esan nahi al du (San

Martin Jaunak aitortzen duen legez) Inkisizioak ez zuela inolako parterik hartu Euskal Herrian oraindik bizirik zirauten forma ideologiko zenbaiten zapalkuntzan? Edonola ere, zer deritze euskaltzainak Frantziako auzitegi zibilen funtzioei? Benetan sinesten al du azar-kontua baino ez zela izan De Lancre Jauna? Kasu horretan, nola esplika daiteke jesuiten zerikusi nabarmena mitologia satanikoaren prestatzean (baita De Lancre epailearen beraren formazioan ere)? Nola, Pirinio Mendietako sorgin-ehiza eta Henry. IV.a eta Louis XIII.aren erreinaldietan Frantziak ezagututako monarkiaren indartze zentralistaren arteko bateratasun kronologikoa?

Hortxe dugu, hain zuzen, Euskal Herriko sorgin-errepresioaz idazterakoan dagoen zailtasunetariko bat: hots, bi monarkia ezberdinek kontrolatutako lurraldea dela euskal lurra, kadentzia eta tresna ezberdinez baliatzen diren monarkiak, nork bere homogenizazio-prozesua aurrera ateratzeko.

Inkisizioa, monarkiaren kontroleko aparatutzat harturik, Iberiar Penintsulan garatu zen soilik, honi zegozkien berezitasunak zirela eta, hain zuzen. Ofizio Sainduak, izan ere, lehen mailako eginkizuna bere estatuaren zentralizazioan zuen, XVI. mendearen bigarren erdialdetik aurrera batez ere. Gainerako monarkia europarren zerbitzuan zeuden beste aparatuen antzera, Inkisizioa bera ere oso erakunde baliotsua gertatu zen "eredu sozial, erlijioso, eta sexual"¹¹ homogenoa (tridentino delakoa, hain zuzen) ezarri eta penintsulako gorputz sozial osoa kontrolatzeko (bere komisari eta familiarren sareaz baliatuz), aldi berean foruen "berezitasunak" lautzen zituelarik. Horrexegatik izango ziren horren ugari jurisdikzioaren inguruko auziak Ofizio Sainduaren eta euskal erakundearen artean. Gipuzkoa, Bizkaia eta batez ere Nafarroako agintariak Inkisizioaren mutur sartzearen kontra behin eta berriro agertzen ziren bitartean, Gaztelako tresna bat zela esanez, hona zer zioten Ofizio Saindukoek: "Urtean bitan batzarre nagusian biltzen dira, eta hau oso arriskugarritzat jotzen dugu, Inkisizioaren sarrera eragozteko agindua ematen ausartu direlarik bertan". Halere, boro-roka luze honen garaile bakarra Inkisizioa izan zen, batez ere 1576az gero, non delitu guztiak (sorginkeria ere barne) bere esku gelditu bait ziren¹².

Argi dago, Ofizio Sainduaren jokaera askoz ere moderatu, barkakor eta eszeptikoagoa izan zela aginte zibilena baino (Erret Kontseilu Nafarra, Batzarre Nagusiak...), bere eskusartzeari esker justizia sekularren zorroztasuna nabarmenki leundu zelarik.

Hala eta guztiz ere, errepresio gogorragoa nork erabiltzen duen argitzea ez da objektiboki garrantzi handiko datua, homogenizazio-mugimendu bati dagokion eredu ideologikoaren ezarpenaz ari garenean batipat. Izan ere, badira maiz askoz eraginkor eta trebeago suertatzen diren errepresio-moldeak. Inportanteena zera da: sorginen "arazoa" ren eta beronen aurka erabilitako konponbideen azpian, zer-nolako helburuak ezkutatzen diren jakitea, eta ea lortu egiten diren. Inkisizioari eta bere jokaera "irekia"ri gagozkielarik, bere kartak badakiela zuhurki jokatzeko, uste dugu. Egin dezagun birpasa txiki bat:

- Arestian esan dugun bezala, delitu-mota guztietarako kontrola lortzen du Inkisizioak, foru-jurisdikzioaren gainetik. "Arazo" bat sortzen denean, sorgin-izurrien garaietan alegia, aginte foralaren zorrozetasun jasangaitzaz baliatzen da Ofizio Saindua bere onurarako, oztopo foral hainbat gaindituz.

- Inkisizioaren erakundea estatu zentralistaren zerbitzuko tresna bat dela onartzen badugu (historilari gehienekin batera), Gaztelaren menperapen-tresna, hain zuzen (Kamen espezialistaren hitzetan "Penintsulako komunitatei ideologia nagusia ezartzeko erabiltzen den arma klasista"), orduan honako hau onartu beharrean aurkitzen gara: sorgin-guneen ugalketa eta sorterazten duten kezka oso probetxagarriak gertatzen direla Inkisizioaren xedeetarako, eredu sozialaren inposiziorako. Ildo honetatik, horra hor Granadan 1526. urtean izandako bileraren ondorengo txostena, non aipatzen bait dira "komenigarritzat jotzen ziren gauzak jendea errakuntza berdinetan berriro eror ez dadin". Hala nola: "baseliazak eraikitzea biltzarreak egiten ziren ustezko tokietan, bertan meza esateko... jendeak meza entzun dezala agintzea jaiegun guztietan eta astegun zenbaitetan... predikuak euskaraz egin daitezela euren errakuntzak gaitzesteko..."¹³. Sorginkerien aitzakiaz, eredu ideologikoaren ezarpena askoz errazago egin zen, dudarik gabe.

1560. urteaz gero, gainera, eredu hori askoz ere zehatzago bihurtu zen, intolerantzia erlijiosoa gogortzen zen bitartean eta Erreforma nola Kontrarreformaren doitasun dogmatikoa eta kontrolatu nahia areagotuz (orduante hasi zen ezkontz eredu monogamoaren nahitaezko ezarpena). Testuinguru honetan, oso baliagarri gertatzen dira sorgin-arazoak, gure ustez, inkisizio-aparatuarentzat. Sortutako egoeraz baliaturik, askoz errazago bereganatzen bait du populazioak forma ideologiko zaharrak (txarrak eta arriskuak suertatu direnak) baztertu beharra, eredu tridentinoa erresistentzia handirik gabe onartzen duen bitartean. Honek dakartzan

ondorioekin maila askotan: praktika sexualak, jai-ospakizunak, herri-ohiturei lotuegi dagoen apezzeria zaharraren "garbiketa" (gauza jakina da, prozesatuen artean herriko apaiz ugari egon zela, gutxienez 22 elizgizon 1538-1557 bitartean).

Euskal sorgingo herritar eta kolektiboa erasotzeko modurik onena, beraz, ohituren kontrolean zetzan, Inkisizioaren Kontseilu Gorenaren ustetan. Tokiko zenbait inkisidoreren eta agintari zibil gehien eritiziz, ordea (baita Europako beste monarkien ustez ere), zigor gupidagabea eta neurririk gabeko egozpena ziren irtenbide bakarrak. Alabaina, bilatutako xedea berdintsua zen azken funtsean (gure aburuz behintzat), hots: forma ideologiko zaharrak gogamen kolektibotik desagertaraztea, eredu menperatzailearekiko ukapen-jarrera potentzialarengatik. Honek ez du esan nahi, Reguera historilariak adierazten duen bezala (op. cit.), ideologia jakin bat dagoenik sorginaren atzean. Nahiz eta sorgintzat salatua eta Gaztelako Koroaren arerio politikoak (nafarrak, guztiz gain) nahasian agertu zenbait kasutan. Adibidez, 1527. urtean Zaraitzu, Erronkari eta Orreagako haranek jasandako sorgin-ehiza, non, Bennassar-ek dioenez (op. cit.), sorginak Alderdi Nafar delakoarekin identifikatu izan bait ziren. Beste zenbaitetan ere, bat datoz sorginen goren puntuak, gerrate zibil eta tokiko borroka politikoekin (arazo erlijiosoak ere tartean daudelarik batzuetan). Hala eta guztiz ere, arestian esan bezala, sorginen kolektiboak ez du ideologia politiko zehatzik berekin. Baina lotuta dago, behin eta berriro aipatu dugun legez, herri-kulturarekin, eredu ofizialaren kontrakoa gerta daitekeenarekin hain zuzen. Horretan datza bere arriskugarritasun potentziala: protesta, erreberia eta erresistentziarako edozein bide bere inguruan biltzeko izan dezakeen gaitasunean. Alabaina, gaitasun hori bere kontrolpean jartzea lortzen du talde menperatzaileak, eta, bide batez (lantxo honen lehen atalean adierazi dugun bezala), sorginaren jatorrizko funtzioetariko batez (koplaburukoarenaz) baliatzen da, bere interesen arabera lekualdatzeko: hala krisia nola marginazioa justifikatzeko, batetik, eta, bestetik, eredu berria onartu beharra agerian jartzeko herriaren aurrean.

Hau litzateke, gure eritiziz, Euskal Herriko sorgin-errepresioari dagokion irakurketa historiko globala. Erizpide honen alde, hortxe dugu beste funtsezko faktore bat: behin eta berriro birsortzen diren sorgin-guneak XV. mendearen bukaeratik XVII.aren hasierate, beti ere leku berdintsuetan: Enkarterriak, Durangaldea, eta, batez ere, Pirinikoak eta hauen inguruak, Biarno eta Jakeria

ere barne. Sorgin-guneak, bada, ez dira edonon agertzen eta gartzen. Izan ere, lurralde haiek, Pirinio aldeak batez ere, bazuten beren izate propio eta mugatua, forma ideologiko zaharrek (egoera berrira egokituak, noski) eta horien funtzioak indarrean zirautelarik bertan. Sorgingo funtzionalak erabilgarri izaten jarraitzen zuen leku haietantxe sortu eta birsortu ziren sorgin-izurriak. Sorginekiko beldurra berekin zuen sistema hartan, izu horren inguruan sortutako tentsio sozialak horizontalki baretu ohi ziren. XVI. mendearen bukaeraz gero, (edota lehenago) berriz, sorginaren gauzatutako tentsio hura goitik, bertikalki, konponduko zen errepresioaren bidez, beldurra eta berorren funtsa eraldatuz. Eta, gainera, transformazio hau ez zen gertatu herri-eredu kulturalaren berezko bilakaerak eraginda, baizik eta goitik zuzendutako erizpi-deen kariatz.

Lurralde desberdinen azterketa sistematikoa oso interesgarria litzateke; baita, horrekin batera, sorgin-izurriak noiz barreiatzen diren jakitea, zelako errepresioa ematen den eta nork eskatuta, zein une sozial, politiko eta ekonomikotan hasten diren salaketak (bai tokiko mailan baita maila orokorrean ere). Horri ekinez gero, sorpresa ugari hartuko genuke, dudarik gabe, baita motibazio ezberdin eta kontraesan asko jasoko ere.

Alabaina, XVI. mende osorako baliagarritzat hartu dugun hari eroalea (hau da, sorgin-errepresioaren azpian datzan homogenizazio-prozesua) aldatuko ez litzatekeelakoan gaude. Izan ere, nahikoa garbi bait dago, gure ustez, Euskal Herri penintsularraren kasuan behintzat, sorgin-errepresioaren ondorioz behinena zera dela: Inkisizioaren nagusitzea foruen gainetik, heresia erasotzeko boterea bere eremutat hartzen duelarik.

2) *Pirinioak: lurralde integratua eta inguruko monarkien lehen mailako helburua*

Gure herriaren historiari aritzerakoan, maiz antzean arinkeria gehiegiz erabiltzen dugu Euskal Herria kontzeptua. Batzutan, errebindikape nazionalisten ondorioz; beste batzutan, berriz, trinkimaina hutsa baino ez da, azterketa historikoa interes politikoen pean dagoelako nahiz behar ez diren estrapolazioak egiten direlako.

Oro har, XVI eta XVII. mendeetan hizkuntza zuen Euskal Herriak bere nortasunaren ezaugarri bakarra. Maila politikoan,

ekonomikoan nahiz sozialean, ez dago planteamendu orokorra egiterik. Horrexegatik, edozein arazo historiko (sorgin-ehiza, esaterako) aztertzerakoan, dagokion inguru soziala zehazki ezagutu beharko dugu.

Antzeko zerbait gertatzen da sorginen aurkako errepresioari ekiterakoan. Errepresio-aldiak leherteratzen dituzten zergatiak ezberdinak izaten dira, prozesuen bilakaerak ezberdinak gertatzen diren bezalatsu. Non eta noiz kontutan hartu behar dugu. Gure liburuskari, XVII. mendearen hasieran eta inguru piriniarrearrean kokatzen ditugu prozesuak. Urte haietan, hain zuzen, eten egin bait zuten Inkisizioak ordurarte izandako jarrera, bere indar errepresibo itzela zabaleraziz.

Zergatik, bada, frantses eta gaztelaniar monarkiek sorgingoa jazarri zuten ia aldi eta leku berean? Nahitaez bi arazo nagusi hauek sortzen dira:

- Alde piriniarren integrazio-maila nabarmena, bere nortasun espezifikoa¹⁴, geroxeago ikusiko dugunez.

- Maila politiko-estrategikoan balio handiko lurraldea izatea. Izan ere, monarkia feudal ezberdinek, hots, Ingalaterra, Frantzia, Biarno, Aragoie edota Gaztelaniak, nor bere eragin politikoa ezarri nahian, etengabe eskusartzen zuten inguru horretan. Gauzak honela, sorgingorengatiko akusazioa edozein motatako mugimendu ezerosoak zapaltzeko bide eraginkor bihur zitekeen.

Oso laburki bada ere, egin dezagun gizarte piriniarren ezaugarritzea; baita errepresio-aldiaren testuinguruarena ere.

Azpmarratzekoa da lurralde honen kohesio handia, non berdintsuak bait dira hala oinarrizko egitura ekonomikoa nola bilakaera soziala eta politikoa. Bazterreko lurraldea izanik, egungo muga piriniarrak ez zuten berezitasunik isladatzen garai hartan. Oro har, inguru honetako populazioaren baliabide ekonomikoak urriak ziren, ia esklusiboki lehen sektorean oinarrituak. Hiri-desarroi ahula ere ez da ahaztu behar. Atzerapen ekonomiko hori gorabehera, lehen mailako rola jokatzeko zuten abereek. Iharduera horren garrantzia zela medio, lur zilegiak nahikoa zabalak ziren.

Nabarmena zen gizarte hauen oligarkizazioa. Botere politikoa beren esku izateaz gain, goi-klaseek hainbat eta hainbat jaun-motako eskubide jasotzen zuten. Lur komunalen ustiapena ere berek erabakitzen zuten, honen inguruan gazka ugari sorteziz.

Garai hartan, bailara piriniarrak eta inguruneak pobre eta atzeratutzat hartuak zeuden¹⁵. Salazar-en eritziz, klima eta erliebearen laztasuna zela medio, agintari eklesiastikoez ez zituzten behar bezala bete lurraldearekiko beren eginbeharrak.

Iharduera ekonomikoaren ondorioz, oinarrizko harreman sozio-ekonomikoak amankomun-motakoak ziren. Izan ere, familia nuklearra ez zen eredu sozial nagusi bihurtzera heldu. Aitzitik, etxeek (etxekeok) eredu ernalgarri nagusia izaten jarraitzen zuten, burges-motako familiarekiko nabarmenki ezberdinduz. Reguera-k dioenez (op. cit.), bigamiarengatiko prozesatuen kopuru altua, Calahorrako auzitegian, Euskal Herriko egitura sexual nahiz familiar bereziaren froga da.

“Cendea” zen erakunde sozial zabala, zeinaren inguruan herri-eriska batzuen ordezkarriak biltzen omen bait ziren. Zenbait egile-uren ustetan, erakunde horren funtzioa gizartearen jentil-antolamenduan zetzan¹⁶.

Maiz aditzera eman da kristautasuna nabarmen eta sakon ezarri izan zela gure herrian. Hori mitoa! XVI. mendean kutsu paganoa etengabe zerien erritual kristauari eta hainbat herri-ohiturari. San Martin Jaunak “superstizio” edo “fertilitate-errito”tzat jotzen dituen zenbait herri-ospakizun (akelarrea ere barne agian), herria zetxekien antzinako adierazpideak baino ez ziren. Izan ere, forma ideologikoak ez bait dira zeharo baztertzen, nolabaiteko funtzioa mantentzen duten bitartean. Bere menpekotasun izadiarekikoa zela, biziera komunala zela, nahitaez erritual prekristau oso batekin jarraitzen zuen gizarteak. Erritual horren agerpideak aski ezagunak ditugu: izadiaren fenomenoei kultu egitea (hauen pertsonifikazio-adibide argi bat Mari delarik), solstizio eta abar ospatzea, hildakoekiko loturak mantentzea, hainbat toki (mendi, haitzulo, bidagurutze, etab.) sakratutzat edukitzea... sorginen boterean sinestea bera.

Esan bezala, XVII. mendean sorginak, belagileak... beren garrantzia zuten gizartearen. Salazar inkisidoreak berak euskal hirietan honelako pertsonaia asko zegoela baieztatu zuen¹⁷, nekazariak horien bezero nagusiak zirelarik. Hala eta guztiz ere, errepresioaren helburuek beste norako bat omen zuten. Baina, kontutan hartu behar duguna zera da: sorginengan sinesteak bizirik jarraitzen zuela herri-mentalitatean.

Zenbait eraldaketa ezagutu zen nekazal inguru hartan. XVI. mendearen bigarren erdialdetik aurrera batez ere, premia biziko

elikagaien hornidura zaildu egin zen eta Pirinioen inguru osoan herri-klaseek krisialdi ekonomiko baten eraginak jasan behar izan zituztelarik. Garaiko bihi-falta nahiz oihan-baliabideen agortzea aski frogaturik daude. Burdin-produkzioaren atzeraldiak eta lur langarrien hedakuntzak¹⁸ (zilegien kaltetan) nekazal ekonomiaren oinarri ahulak zulapetzen zituzten. Horrez gain, nazioarteko gerrate ugariak, erlijioarengatikoak, frantses eta espainiar koroen artekoak... hemen ere isladatu ziren, klase sozial ezberdin eta goi-klase bereko fakzioen arteko borrokak eta lurraldearen hondamen orokorra sorteraiziz. Gosetea, miseria, izurriteak, ezegonkortasuna hedatu ziren nonnahi¹⁹.

Egoera hartan, antzinako leinuen oinarri ekonomikoak (eliz patronatuak, hamarrenak, burdinolak, errotak...) atzeratuz zihoa-zen²⁰. Halaber, herri xeheak (nekazariak, merkataritxiak, behe-mailako apezkeriak...), protesta eta erreboltak zirela medio, handikien boterea kilikolo jartzen zuen, burdinolen jabetza bereganatuz batzutan, edo, bestetan, patronatu gorrotagarrien legaltasuna zailantzan jarritz. Beren nagusigoa mantendu nahian, goi-klaseak botere zentralarekin bat egiten saiatuko zirela esan daiteke oro har. Errepresiorako tresna eraginkor bihurtu zen sorginkeriagatiko akusazioa (mementu ezin hobea); baita udal-boterea eskuratzearen borrokatzen ziren oligarkia familiarrek elkar salatzeke medio baliagarri ere²¹.

Lapurdin gertatutakoa adierazgarria da oso. Bertan, XVI. mendea zehar, jaun-boterearen aurkako erresistentzia garrantzizkoa gertatu zen. XVII. mendearen hasierako sorgin-prozesuen ondoren, Urtubiko jaunak (errepresio-aldia bultzatu zuen, hain zuzen), antzinako pribilegioak mantentzeaz gain, Lapurdiko bailegoa lortu zuen. Areago oraindik, denborarekin beste fakzio nobleak (Senperekoa) baztertu zituen, bere hegemonia sendotuz.

Zentralismoaren eragina ukaezina da, izan, Euskal Herriko klaseen egiturari. Prozesu erdirakoiak ondorio dramatikoak izan zituen. XVI. mendearen hasieran, koroa gaztelauak Nafarroako Erresumaren konkista burutu zuen. Ondoren, nafar bandoaren aurkako errepresioa eman zen, sorginkeriagatiko akusazioa aitzakiatzat erabili izan zelarik behin baino gehiagotan. Bitartean, prozesu erdirakoiak aurrera jarraitzen zuen Hego Euskal Herri osoan. Zer esanik ez Iparraldean: hemen, Nafarroa Behereko merinaldea monarkia frantsesari behin-betiko erantsia gertatuz gero Henry IV.aren garaian, foruen aurkako saioaldiak areagotu egin ziren nabarmenki. Geroztik, eta bereziki Richelieu-ren agintaldian, zerga

berrien, eskusartze militarren, kargu-izendapenen eta abarren eragina ongi ezaguna izango zen, eta ez bakarrik Euskal Herrian, baita inguruko lurraldeetan ere (Biarnon, esaterako, sorgin-prozesuak garai berean zabaldu bait ziren).

Argi zegoen, "pribilegio" direlakok eta era guztietako berezitasunek ez zutela lekurik absolutismorantz zihoazen monarkia berri haietan.

Horrez gain, bi monarkien arteko muga politikoa sendotzen hasia zen, honen eragina maila guztietara zabalduz. Erlijio mailan eta protestantismoaren sarrera galerazi nahian, Hondarribia, Doneztebe, Baztan eta Bost Hiribilduek Baionako apezpikuarekiko zuten menpekotasuna hautsi egin zuen Felipe II.ak 1566. urtean.

Zentralismoaren ezarrera hura bertako klase batzuen kolaborazioari esker egin zen neurri handi batean. Izan ere, goiko klaseek arras bereganatuak omen zituzten monarkia erdirakoien helburuak. Gortean edo itsas-osteko ihardueretan parte hartuz, etekin politiko nahiz ekonomiko nabarmenak lortzen zituzten nobleek. Botere zentraletik menpekotasuna areagotuz zihoan heinean, bere bizimodu tradizionala arriskuan ikusten zuen herri xeheak.

Herri-ohituren arazketari dagokionez, Kontrarreformaren eraginak laster ezagutuko ziren Euskal Herrian. XVI. mendearen bigarren erdialdetik aurrera gailur eklesiastikoa nahiz agintari zibilak jo eta ke ari ziren herri xehearen bizitza zuzentzen. Honen inguruan hartutako erabakien kopurua ez da batere txikia. Izan ere, gogor jazartzen hasten dira²² hildakoekiko kultura (ospakizun erriuala bera arautzen eta kontrolatzen, bertan bil zitekeen laguneren kopurua murrizten...), Elizak baimentzen ez zituen sexu-harremanak, apaizeriaren bizimodua bera eta abar luze bat. Gaizkia sortzen zen leku guztietatik eta, antza, jendearen bilera zabaletan zeukan habiarik egokiena berorrek.

Honetan datza botereak akelarreari buruz sortutako ezaugarritzea (meza beltza, haurren hilketak...). Akelarrea *amets huts*, *fertilitate-errito* (honek, hain zuzen, Margaret Murray-ren teoria onartzea suposatzen du nolabait) edo *orgia*-tzat definitzea arriskugarria da; prozesuetan oinarritutako iturriak ontzat ematea arriskutsua den bezalatsu, neurri handi batean. Antzinako akelarreaz aritzera koan, ez dago gertakari soilera mugatzerik; arestian deskribatutako giza harreman komunalak hartu behar dira kontutan. Hala eta guztiz ere, baliteke giza ordenamenduaren inbertsioa ematea ake-

larre-biltzarreetan, baina, informazioa hain mugatua denez gero horretaz, ez daukagu gure analisisa honetan oinarritzerik.

Botereak ideologia eta ohitura herritarrak arazten baditu ere, aldi berean, helburu zehatz batzuk ezartzen saiatuko da: ezkontz erakundearen finkapena (eta, jakina, gizonezkoaren lehentasuna emakumezkoaren gainean), gizarte laiko eta eklesiastikoaren arteko bereizketa (eliz gizonaren protagonismoa bultzatuz), heriotza eta bizitzaren arteko banaketa osoa (gizakia babesik gabe utziz)... Euskal Herri osoan ebanjelizazio sakona inposatzen da²³. Horretan ados zeuden sorginetan adituak: De Lancre epailea eta Salazar inkisidore humanista²⁴.

Egitura ideologikoaren finkatze-saio hauetan ez dugu baztertu behar kontrarreformaren xederik nagusia, hau da, protestantisismoaren hedakuntza galeraztea. Hain zuzen, estatu-arazo bihurtu zen berau monarkia gaztelauarentzat. Erlijio-gerrateetan alderdi katolikoaren alde egin zuen borroka Felipe II.ak. Ideia eta liburuaren sarrera eragotzi nahian, Hego Euskal Herriko itsas portuetan eta Pirinioetan zehar osasun-kordonadura ezarri zen. Arazo ideologiko horren atzean asmo politiko argiak zeuden. Izan ere, hugonoteak, klase ezberdinez osatutako aliantza batean bildurik (zeinetan burgesek eta behemilako nobleek parte hartuko zuten), monarkia frantsesaren oinarriak kilikolo jartzera heldu ziren bolada batean. Kutsapen-arriskua hor zegoen. Oso arrisku hurbila, ez bait dugu ahaztu behar kalvinismoaren hedakuntza Biarnon eta Ipar Euskal Herriko zenbait aldetan eta zenbait klaseren artean. Areago, arestian aipatu dugunez, kontutan hartzen badugu ekonomi eta giza harremanetarako mugaren rola oraindik ez zutela betetzen Pirinio Mendiek.

Sorgin-chizari gagozkiolarik, prozesuen agiriek, agintari lokalen txosten eta kekek eta hainbat pulpitutatik luzaturiko sermoien mamiak bi ondorio hauek baieztatzen dizkigute:

- Euskal Herrian ere, gaizkia antolatuz omen zegoen: agintariek ziotenez XVII. mendearen hasieran, Nafarroa Behereko iparraldean ez omen zegoen sorgin-sektarik gabeko herri bat ere²⁵.

- Gaizkia marginalitateari zetxekion. Edozein agote, adibidez, talde baztertu baten kidea izanik, sorgin izatearen susmagarritzat hartua izateko arriskuan zegoen beti ere. San Martin-ek "sorginak, gizajo inozente batzuk baizik ez zirela" esaterakoan, arrazoi du. Guk honi zera erantsiko gekioke: emakumezkoak, adinekoak (atso-agureak), eskaleak... gizartearen babesgabeko taldeak alegia,

izan zirela orokorki sorgintzat salatuak. Ikusi besterik ez dago akusatuen zerrendak. Dena den eta arestian esan dugunez, noizean behin sorginkeriagatiko akusazioa baliagarri gertatzen zen beste motatako helburuak lortu ahal izateko; esaterako, familia etsaiak udal-boteretik urruntzeko, mendeku hutsak egiteko... Baina balizko akelarreetan aberatsak azaltzen omen baziren ere, aparteko gertakaria zen hura, antza denez.

Baztertuek osatutako sekta hauengana desbideratzen saiatuko zen boterea gizarteak jasandako gaitz eta lazeria guztien erresponsabilitateak. Historian zehar (eta egun oraindik), peligrisitate sozialari zeharo atxekia egon da marginalitatea²⁶. Areago krisi-garai hartan, non pobre eta baztertuen kopurua gehituz bait zihoan populazioaren bizi-baldintzak txartzten ziren neurri berean.

Ez dugu ahaztu behar historiaren sortzailea boterea izan zela. Sektaren ezaugarritzea (originaltasun-eza eta, bestalde, Europan zehar erabilitako ereduaren berdintasuna), honen frogatzat jo dezakegu. Urtubiko jaunak, Urdazubiko monjeek, tokiko agintariek, monarkiaren ordezkariak... guztiek gogoz parte hartu zuten sorgin-histerian eta -ehizan.

A.S.-I.G.G.

-
- ¹ LISON TOLOSANA, C.: *Brujería, estructura social y simbolismo en Galicia*, Akal, Madrid, 1979.
 - ² TYLOR, E.B.: *Cultura primitiva. Los orígenes de la cultura*, Editorial Ayuso, Madrid, 1977.
 - ³ HENNINGSEN, G.: *El abogado de las brujas. Brujería vasca e Inquisición española*, Alianza Editorial, Madrid, 1983.
 - ⁴ COHN, N.: *Los demonios familiares en Europa*, Alianza Editorial, Madrid, 1980.
 - ⁵ LE GOFF, J.: *Lo maravilloso y lo cotidiano en el Occidente medieval*, Gedisa, Barcelona, 1985.
 - ⁶ BARANDIARAN, J.M.: *Brujería y brujas. Testimonios recogidos en el País Vasco*, Txertoa, San Sebastián, 1984.
 - ⁷ "[El Renacimiento violento de la brujería] supuso el relajamiento intelectual y moral de Europa" (Tylor, E.B.: *op. cit.*).

- ⁸ PUENTE OJEA, G.: *Ideología e Historia. La formación del cristianismo como fenómeno ideológico*, Siglo XXI, Madrid, 1984.
- ⁹ HARRIS, M.: *Vacas, cerdos, guerras y brujas. Los enigmas de la cultura*, Alianza Editorial, Madrid, 1983.
- ¹⁰ VILLENEUVE, R.: *Le fléau des sorciers. Histoire de la diablerie basque au XVII^e siècle*, Flammarion, 1983.
- ¹¹ BENNASSAR, B.: *Inquisición española. Poder político y control social*, Ed. Crítica, Barcelona, 1981.
- ¹² KAMEN, H.: *La Inquisición española*, Ed. Crítica, Barcelona, 1967.
- ¹³ REGUERA, I.: *La Inquisición española en el País Vasco*, Txertoa, San Sebastián, 1984.
- ¹⁴ REGUERA, I.: *op. cit.*
- ¹⁵ VILLENEUVE, R.: *op. cit.*; Salazar inkisidorearen eritzia, in: HEN-NINGSEN, G.: *op. cit.*
- ¹⁶ OLMEDA, M.: *El desarrollo de la sociedad española. Los pueblos primitivos y la colonización*, Ayuso, Madrid, 1974.
- ¹⁷ HENNINGSEN, G.: *op. cit.*
- ¹⁸ OTAZU, A.: "Los banderizos del Bidasoa", in: *Bol. Real Academia de la Historia*, 172, (1975).
- ¹⁹ VILLENEUVE, R.: *op. cit.*
- ²⁰ OTAZU, A.: *El igualitarismo vasco: Mito o realidad*, Txertoa, San Sebastián, 1972.
- ²¹ VILLENEUVE, R.: *op. cit.*; OTAZU, A.: *El igualitarismo...*
- ²² FERNANDEZ ALBALADEJO, P.: *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1766-1833: cambio económico e historia*, Akal, Madrid, 1975; VALVERDE, L.: *Historia de Guipúzcoa*, Txertoa, San Sebastián, 1984; VILLENEUVE, R.: *op. cit.*; CHARPENTIER, J.: *La sorcellerie en Pays Basque*, Librairie Guénégaud, 1977; CARO BAROJA, J.: *El tocado antiguo en las mujeres vascas*; SAN MARTIN, J.: *Arraten sortzen da bizitza*.
- ²³ GOYHENETXE, E.: *Historia de Iparralde*, Txertoa, Donostia, 1985.
- ²⁴ HENNINGSEN, G.: *op. cit.*; VILLENEUVE, R.: *op. cit.*
- ²⁵ HENNINGSEN, G.: "Las víctimas de Zugarramurdi...", in: *Saioak-2* (1978).
- ²⁶ CARO BAROJA, J.: *Las formas complejas de la vida religiosa (siglos XVI y XVII)*, Sarpe, Madrid, 1985.